# CARITASEN KANPAINA

Bilboko Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Cáritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

## GABONETAKO KANPAINA «HATOR. ESTÁS EN CASA»

2023KO ABENDUAREN 17A

## CAMPAÑA DE NAVIDAD: «HATOR. ESTÁS EN CASA»

17 DE DICIEMBRE DE 2023

**ABENDUALDIAK 3 IGANDEA (B)**

**DOMINGO 3 DE ADVIENTO (B)**

## Liturgia lagungarriak

### Atarikoak:

- Gogoratu ezinbestekoa dala lagungarriok alkarte bakotxaren gorabeheretara moldatzea luzera eta hizkerari dagokienez.
- Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia beren-beregi zaintzeko: ogi eta ardaoaren aurkezpena eta altararen behealdean itziko dan kolektarena. Holan egiten bada, diru-batzearen arrazoiak azaltzeko oharra irakurri arte ez gara dirua batzen hasiko. Eukaristia otoitza nabarmendu gorespenak kantatuz, ogia era esanguratsuan zatitu "Jaungoikoaren Bildotsa" abesten dan bitartean, jaunartzea...

## Subsidios litúrgicos

### Notas previas:

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación del pan y el vino y también de la colecta, que se deja a los pies del altar. Si se hace así quizá convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva. Destacar la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan significativamente hecha mientras se canta "Cordero de Dios", la comunión...

### SARRERAKO OHARRA

Apurka-apurka bagoaz Gabonetara hurbiltzen. Orain arte, itxaropenari eusteko eskatu diguten arren, gaur alai ere egon behar dugu, Jainkoa iritsiko delako laster. «Alai egon zaitezte beti», esango digu geroago San Pablok.

Kezkaz eta atsekabez bizi gara, behar bada. Beharrezko dogu poza. Zabaldu deioguzan ateak poz-emoile dogun Jainkoari

### MONICIÓN INICIAL

Seguimos avanzando hacia la Navidad. Si hasta ahora se nos llamaba a la esperanza, hoy se nos llama también a la alegría porque la venida del Señor está cerca. «Estad siempre alegres» nos dirá más tarde san Pablo.

Kezkaz eta atsekabez bizi gara, behar bada. Beharrezko dogu poza. Zabaldu deioguzan ateak poz-emoile dogun Jainkoari.

# CARITASEN KANPAINA

Caritaseko Jardunaldiak berriro gogoratuko digu etxe berean bizi den giza familia bera garela. Izan ere, guztion lurra den planeta daukagu hizpide, askotarikoa bezain dibertsoa dena eta familia-besoz hartzen gaituena. Horregatik, familia unibertsal horretatik bertatik ospatu nahi ditugu Gabonak, eta, gainera, Frantzisko aita santuaren deia dakargu gogora: “Irteten den Eliza izan behar dugu”. Horren bidez, erkidego hartzaileak eta barneratzaileak, atseginagoak, izan gaitezela eskatzen digu, adeitasuna lantzeko ezinbestekoa delako baloratzea eta errespetatzea.

Zutik, elizkizunean sartuko gaituen kantuan bat egingo dugu.

## SARRERAKO KANTUA

## ABADEAREN AGURRA

Gu salbatzera datorren Jainkoaren alaitasuna izan bedi zuekin.

## ABENDUALDIKO KOROAREN KEINUA ETA DAMU-OTOITZA

Ellunpetan, argia piztu zen, eta ahotsa entzun zen basamortuan. Joan Bataiatzailea ez da argia, argiaren iragarlea baizik. Gainera, Berri Ona iragartzen da. Behartsuak, baztertuak eta bizitzako azkenak dira hartzaileak. Haiengan dago Jauna; hurbil-hurbil, gainera. Hirugarren kandela hau pizten dugunean, bizitzako basamortuan erreguka dabilen Joanen ahots berbera izateko deia sentitzen dugu. Zatoz laster, Jauna! Zatoz, Salbatzailea! —Hirugarren argizaria pizten da—

- Anaia gurea, zeure herria sendotzera zatozena: erruki, Jauna.
- Zain gaituzun Mesiasa, behartsuei Berri Ona ematera zatozena: Kristo, erruki.
- Jainkoaren semea, Jaunaren graziaren urtea aldarrikatzera zatozena: erruki, Jauna.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

La Jornada de Cáritas nos sigue recordando que somos una misma familia humana viviendo en la misma casa, un planeta que es tierra común, plural y diversa que nos acoge con brazos de hogar. Por eso, queremos celebrar desde esa familia universal esta Navidad, recordando la llamada del Papa Francisco a ser una “Iglesia en salida” que nos insta a ser comunidades acogedoras e inclusivas, más amables, porque el cultivo de la amabilidad supone valoración y respeto.

Puestos de pie, nos unimos en el canto que nos introduce en la celebración.

## CANTO DE ENTRADA

## SALUDO DEL PRESIDENTE

La alegría del Señor, que viene a salvarnos, esté con todos vosotros.

## GESTO DE LA CORONA DE ADVIENTO Y ACTO PENITENCIAL

En las tinieblas se encendió una luz, en el desierto clamó una voz. Juan Bautista no es la luz, sino el que nos anuncia la luz. Y se anuncia la buena noticia. Los pobres, los descartados, los últimos de la vida son sus destinatarios. En ellos está el Señor, que ya se acerca. Cuando encendemos esta tercera vela sentimos la llamada a ser la misma voz de Juan que clama en el desierto de la vida. ¡Ven pronto, Señor! ¡Ven, Salvador! —Se enciende el tercer cirio—

- Hermano nuestro, que vienes a fortalecer a tu pueblo: Señor, ten piedad.
- Mesías esperado, que vienes a dar la Buena Noticia a los pobres: Cristo, ten piedad.
- Hijo de Dios, que vienes a proclamar el año de gracia del Señor: Señor, ten piedad

Bilboko Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Cáritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao

# CARITASEN KANPAINA

## OHARRA 1. IRAKURGAIARI (IS 61, 1-2.A.10-11)

Lehenengo irakurgaia askatutako herriaren kantua da, baita behartsuek Jainkoaren errukia eskertzeko abesten duten himnoa ere.

## OHARRA 2. IRAKURGAIARI (1 TES 5, 16-24)

Bigarren irakurgaian, Pablo apostoluak kristauaren ohiko ezaugarriak ditu hizpide: alaia izan behar du, eta etengabe egin behar du otoitz.

## HOMILIARAKO IDEIAK

“Beti alai egon zaitezte Jainkoarengan; berriro diotsuet, alai egon zaitezte.” Apostoluaren gonbidapen irmo horren bidez, hasiera emango diogu igande honetako liturgiari, Gaudete izenekoari, hau da, “alaitasunaren igandea”. Igande honetan alaitasunerako egindako deia ez da diren gizon eta emakume sineskor eta axolagabeentzat, fededun moduan Jesus Gabonetan etorriko dela sinesten dutenentzat baizik. Hona hemen Frantzisko aita santuaren irakasbidea: “Ebanjelioaren alaitasunak Jesusekin topo egiten dutenen bihotza eta bizitza osoa betetzen ditu. Salbatzeko aukera ematen diotenak bekatutik, tristeziatik, barruko hutsunetik, bakartzetik askatzen dira. Jesukristorekin, alaitasuna sortu eta birsortu egiten da beti”.

"Pozaren pozez nago Jaunarekin, eta neure Jainkoarekin alaitzen naiz”, abesten du profetak. Ez gara gugatik alaitzen. Guztiz kontrakoa. Gure txikiaren eta munduaren harrokeriaren zentzua probatzen dugu. Edonola ere, alaitu egin behar dugu, txiki-txikiak izan arren, Jainkoak aukeratu egin gaituelako. Xumeak badaki alai egoten. Ez, ordea, zoriontasunaren jabea dela uste duen arren bere tristeziaren bila baino ez dabilen aberatsa. Harroa ere ez dago alai: inoiz ez dago ase, ez diolako inori bera maitatzeko aukerarik ematen.

Bataiatzailearen esanetan, Bera da “basamortuan oihu egiten duen ahotsa: Jaunaren bidea leundu ezazue”. Ahotsa baino ez da. Txiki-txikia. Edonola ere, indartsua da. Bataiatzaileak hitz egiteko erantzukizuna sentitzen du, eta Jaunaren izenean hitz egiten du. Fededuna, ekintza-egilea izan baino lehen, ahotsa da, hitz egiten duen lekukoa, alegia.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

## MONICIÓN A LA PRIMERA LECTURA (IS 61, 1-2ª.10-11)

La primera lectura es el canto del pueblo liberado y el himno por el que los pobres agradecen la misericordia divina.

## MONICIÓN A LA SEGUNDA LECTURA (1 TES 5, 16-24)

En la segunda lectura, el apóstol Pablo indica ahora las características típicas del cristiano: debe ser alegre y orar incesantemente.

## SUGERENCIAS PARA LA HOMILÍA

“Estad siempre alegres en el Señor; os lo repito, estad alegres." Con esta firme invitación del Apóstol, se abre la liturgia de este domingo, llamada Gaudete, "domingo de la alegría". La invitación a la alegría de este domingo no es para hombres y mujeres ingenuos e inconscientes, sino para quienes tienen conciencia, como creyentes, de la próxima venida de Jesús en Navidad. Nos enseña el papa Francisco: “La alegría del Evangelio llena el corazón y la vida entera de los que se encuentran con Jesús. Quienes se dejan salvar por él son liberados del pecado, de la tristeza, del vacío interior, del aislamiento. Con Jesucristo siempre nace y renace la alegría”.

"Desbordo de gozo en el Señor y me alegro con mi Dios”, canta el profeta. No nos alegramos por nosotros mismos. Al contrario: probamos el sentido de lo poco que somos y de la vanidad del mundo. Sin embargo, debemos alegrarnos porque a pesar de nuestra pequeñez hemos sido elegidos por el Señor. Y el humilde sabe alegrarse. No el rico que se cree el dueño de la felicidad, pero que persigue solo su propia tristeza. Tampoco el orgulloso se alegra: nunca se sacia porque no se deja amar.

Escuchamos al Bautista. Él es "la voz que grita en el desierto: Allanad el camino del Señor". Es solo voz. Muy pequeño. Sin embargo, es fuerte. El Bautista siente la responsabilidad de hablar y habla, en nombre de Dios. El creyente, antes de ser un hacedor de obras, es una voz, un testigo que habla.

# CARITASEN KANPAINA

Horixe bera da Bataiatzailearen benetako indarra. Indar ahula da. Dena dela, indartsua denez, asko eta asko ahots horren inguruan batzen dira isilarazteko asmoz. Bataiatzaileak eta Ebanjelioa jakitera ematen duten guztiek ez dute hitz egiten euren gaineko arreta erakartzeko. Ahots horrek indartsuagoa eta ahaltsuagoa den beste baterantz garamatza. Juanek hau esan zuen Jesusi buruz: "Hauxe da haren xedea, haren zeregina. Benetako argia zein den adieraztea da haren indarra, guzti-guztiok argi hori ikusteko aukera izan dezagun."

Isaiasek zioenez, "Jainkoak bidali nau behartsuei Berri Ona ematera". Jesusek hitz horiek hartu zituen bere gain, Bera haren erabateko betearazpena da-eta. Caritaseko Gabonetako kanpainak etxeko berotasunaz hitz egiten digu. Dei egiten digu, arrazoi batengatik edo beste batengatik bide-bazterrean geratu direnak etxean bezala daudela sentiaraz ditzagun; esate baterako, uneren batean gauzak txarto joan zitzaizkielako, ahul sentitzean euren bizitzari eusteko gai izan ez zirelako eta esku hurbila, laguntza behar izan zutelako, norbaitek entzun eta ulertu ziezaien.

## JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Jaunak beti bere promesak betetzen dituela dakitenen berezko alaitasunaz, otoitz egin dezagun.

- Eliza osoaren alde, bertan fedea igorri eta Jainkoaren maitasunaren Berri Ona jakinarazten dutenen alde, indarkeriaz eta desadostasunez betetako mundu honetan haien ahotsa inoiz itzal ez dadin. Eska diezaiogun Jaunari.

- Caritasen alde, beti-beti hortxe egon dadin eta, horri esker, maitasunarentzat zabalik dagoen bihotzaz benetan bizi gaitezen, bete-betean parte har dezagun, gizaki guztiontzako duintasuna nahiz justizia lortzeko ahal dugun guztia egin dezagun eta hurbiltasuna zein prestasuna landu ditzagun, horrela alaitasunaren eta itxaropenaren iturri izango gara eta. Eska diezaiogun Jaunari.

- Bizitzaren laztasun bete-betean euren inguruan itxaropena, alaitasuna eta konfiantza igortzen dakitenen alde, haien ahalegina aintzat hartu dadin. Eska diezaiogun Jaunari.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

Esta es la verdadera fuerza del Bautista. Es una fuerza débil. Pero es fuerte, tanto que muchos se agolpan alrededor de esa voz para silenciarla. El Bautista, y todo el que comunica el Evangelio, no habla para atraer la atención sobre sí mismo. Esa voz nos envía hacia uno más fuerte y poderoso. Juan señala a Jesús: esta es su misión, su tarea. Y su fuerza es indicar la luz verdadera para que todos puedan verla.

Decía Isaías que "El Señor me ha enviado para dar la buena noticia a los pobres". Palabras que Jesús asumirá porque Él es su pleno cumplimiento. La campaña navideña de Cáritas nos habla de calor de hogar. Es una invitación a hacer sentir como en casa a quienes se han quedado a un lado del camino porque en algún momento las cosas les fueron mal, se sintieron frágiles e incapaces de sostener su propia vida y necesitaron una mano cercana, un apoyo, ser escuchadas y comprendidas.

## ORACIÓN UNIVERSAL

Con la alegría propia de quienes saben que el Señor siempre cumple sus promesas, oremos.

- Por la Iglesia entera, por quienes en ella transmiten la fe y comunican la Buena Noticia del amor de Dios, para que nunca se apague su voz en este mundo lleno de violencias y discordias. Roguemos al Señor.

- Por Cáritas, para que nunca deje de invitarnos a vivir de verdad con el corazón abierto al amor, a tomar partido y hacer todo lo posible para que la dignidad y la justicia sean posibles para todas las personas, a cultivar la cercanía y la disponibilidad, para que así seamos fuente de alegría esperanza. Roguemos al Señor.

- Por quienes, en medio de la dureza de la vida, saben transmitir a su alrededor esperanza, alegría y confianza, para que sea valorado su esfuerzo. Roguemos al Señor.

- Por quienes celebramos la eucaristía, para que esta campaña de Navidad, nos lleve a dar testimonio de nuestra fe y de nuestra opción de poner en el centro de nuestra mirada y de nuestra acción el amor por las personas, en especial, por las más pobres, las más pequeñas y desprotegidas por la lógica individualista del mundo. Roguemos al Señor.

Bilboko Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Cáritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao

# CARITASEN KANPAINA

- Eukaristia ospatzen dugunon alde, Gabonetako kanpaina honek gure fedearen testigantza ematera eraman gaitzan eta geure begiradaren nahiz ekintzaren erdigunean pertsonenganako eta, batez ere, behartsuenganako, txikienganako eta munduko logika indibidualistak babesten ez dituenenganako maitasuna jartzea aukeratu dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, behartsuen eta egoera txarragoan daudenen Aita, entzun gure otoitza, erakuts iezaguzu zeure borondatea eta emaguzu bihotz eskuzabala, Salbatzailearen bidea leuntzeko. Bera bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

## CARITASEN ALDE DIRUA BATU AURREKO OHARRA

Caritasek gure laguntza ekonomikoa behar du, baztertuen daudenengana, azkenengana iristen jarraitzeko. Keinu bat, mila kimu. Gaur bildutakoa oso-osorik izango da Elizbarrutiko Caritasentzat. Eskerrik asko zuon elkartasunagatik.

## JAUNARTZE ONDORENGO ISILUNEAN

Jesus Jauna,
zuri esker Espiritu Santuaren agerpenak betetako erkidegoa izan gaitezen,
konpromisoa daukan eta behartsuen zerbitzura dagoen erkidegoa,
edozein gizakiren aurrean inolako aurreiritzik ez duen erkidegoa,
elkartzeko eta entzuteko guneak sortzen dituen erkidegoa,
erkidego otoizlaria,
bertako kide guztiek euren baitan daramaten Jainkoarekiko
topaketa intimoa bizigai eta elikagai dutela kontuan hartuta,
erkidego gogotsua, bizitzari abesten dakiena,
edertasunaren aurrean dar-dar egiten duena,
misterioaren aurrean beldurtu egiten dena
eta konpromisodun
maitasunezko ekintzen bidez
maitasunaren Erreinua iragartzen duena.

## PRESIDENTEAREN AGURRA

Gaur, behartsuei eta fededunak ez direnei Berri Ona iragartzen dieten lekukoak behar dira. Aste zoriontsua Abendualdiko bidean! Zoazte Jaunaren bakean.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

Señor Dios, Padre de los pobres y desamparados, escucha nuestra oración, muéstranos tu bondad y danos un corazón generoso para allanar el camino del Salvador. Él, que vive y reina por los siglos de los siglos.

## MONICIÓN A LA COLECTA EN FAVOR DE CÁRITAS

Cáritas necesita nuestro apoyo económico para poder seguir llegando a las personas en situación de mayor exclusión, a las últimas. Cada gesto cuenta. La colecta de hoy será íntegramente destinada a Cáritas Diocesana. Gracias por vuestra solidaridad.

## EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Señor Jesús,
haznos una comunidad invadida por la presencia de tu Espíritu Santo, una comunidad comprometida y servidora de los pobres,
una comunidad acogedora y sin prejuicios ante cualquier ser humano, una comunidad creadora de espacios de encuentro y escucha,
una comunidad orante en la que cada uno de sus miembros vive y se alimenta del encuentro íntimo con el Dios que le habita,
una comunidad entusiasta, que sepa cantar a la vida,
vibrar ante la belleza, estremecerse ante el misterio y anunciar el Reino del amor con sus obras de amor comprometido.

## DESPEDIDA DEL PRESIDENTE

Hoy se necesitan testigos que anuncien la Buena Nueva a los pobres y a quienes no creen. ¡Feliz semana en el camino del Adviento!. Podéis ir en paz.

